


INORA EZ DARAMATEN BIDEAK



© Egilea: Xabier Galarreta

–Ez, ez daukazue zer eginik hemen.

Ahots bat entzutea iruditu zitzaion. Begiratu zuen atzerantz baina ez zuen inor ikusi, bat ere harritu ez zuena, ahots hura ez baitzeturren kanpotik, barrutik baizik. Barne-ahots bat zen, zerbaitez ohartarazi nahi zuena, gelditzeko esan nahi ziona, zeren aurrera jarraitzekotan, “ez daukazue zer eginik hemen”. Monotoniaren ahotsa zen, asperdurarena, inora iritsi gabe bere horretan ahitzen diren bideena. Berak ederki zekien hura zer zen –urteak zeramatzan bide-zidor horietan barna, galdurik!–. Inora ez daramaten bideak, Erromara behin ere –BEHIN ERE– ez daramaten bideak, bihotzaren hondo-hondoan hautsa pilatuta uzten duten bideak, alferrikako existentzien alferra beste helbururik ez dutenak.

–Ez daukazue zer eginik hemen.

Entzun zuen berriro. Oraingoan, ordea, ez zuen burua jiratu ea ahots hura nondik zetorren... Bere barne-ahotsa zela bazekien. Bitxia da, pentsatu zuen, bitxia da nola ote den posible urte luzeetan –akaso jaioz geroztikan– gure baitan eraman dugun ahots bat, isili-isilean, hain barneratuta non ahotsa entzuteari uzten diogun, geure baitako ohiko soinu-maparen parte izatera igarotzeraino. Egun batean, baina, ahotsaz jabetzen zara, onerako zein txarrerako –gehiago txarrerako,

ziur aski, beste ezein onurarako baino—. Eta kosta egiten zaizu onartzea zurea dela: hain da monotonoa, hain da asperra!

Bilakatzea ezinbestez beste aukerarik ez daukan existentzia bat, edo kontakizun bat, edo margolan bat, edo partitura bat... “Egilearen proiektzio alua!” oihukatu zuen, bere etsipenaz harantzago jo nahian, ziur aski.

Zerbait esan nahi lukeen, baina hainbeste gauza eta hain bat-batean denak, non ezgauza baitzen, zeharo, hitz-erdi bat ere ahoskatzeko. Hitz-segidak gauzatzea baino gauza ezinezkoagorik! Ez zen gai, hitzen bertuteak alderantziz jarriko lukeen ahalegina ukabil batean biltzeko ez bazen! Hutsalkeria... hitz baten inguruan pilatzen den hutsalkeria asko-asko denean... ezinbestekotu egiten gaituenaren aurrean amore eman aurretik... hain da itsusia amore ematearen aurpegia!

...

...

Horman barrena zulo bat egin zen. Horma hura zen haren arima eta kolore hura haren arimaren tonua. Arimak islatzen zuen berak puntu eta koma batean gakoturik zeraman kode bat, kode bitxi bat, egiptoarren sarkofago bat –apika– irekitzeko balioko liokeena, edo hizkuntza misteriotso baten –ba ote dago misteriotsoa ez den

hizkuntzarik?– jatorri ulergaitza argitzeko baliagarria gertatuko litzaiokeena. “Zer ondo”, pentsatu zuen mespretxuz, “ikertzaile handiarena egiten ez al nintzen ba mundu guztiaren aurrean azaldu?”. Azalutsa... hitza etorri zitzaion ezpainetara, eta lehengo erdeinu beraz txu egin zuen lurrerantz, txu hartan munduan bildutako behazun pozoitsu guztia bota nahi balu bezala...

Mundua biribila omen da. Bueltaka ari omen da espazioan. Espaziotik iritsitako mineralpuska erraldoien fruitua omen gara. Eguzkia noizbait itzaliko omen da. Bi hanka eta buru bat omen dauzkagu. “Horra gizakiarenak diren ziurtasunak” oihu egin zuen indarrez, bere senetik atera. “Horra gizateriak zeri heltzen dion, sugarrari heltzen dion desesperatuaren etsipen berberaz!”. Barrez hasi zen. Gogorik gabeko barrea zen. Barre hutsala, inori kutsatzen gaitza, bizitzeko hil edo biziko organoak atrofiatuta edukitzea izan ezik. Barre egin nahi ez duten barre-algara, alkoholik gabe mozkortzen direnena, beren buruarekin hitz egiten ohitutakoena, zerbaiten alde/zerbaiten aurka eskua jasotzeko gauza ez direnena... baina ez ausardiarik ezagatik, baizik arrazoirik ezagatik. Askotan arazo bakarra hori da-eta: nondik atera borroka egiteko indarra inguruan daukazun guztia indiferentziazko itsaso bat denean, ez besterik...?

Gaitza sendatu ezin denean, gaitza behintzat arinduko dizun sendabidea bilatzea zilegi da –izan behar luke...–. Orduan, sexua azaltzen da, hortxe,

gauean, hasieran argi ahul baten gisa baino ez –beti hortxe egon zen argi ahul baten gisan–, gero, poliki-poliki, argi hori handiagotuz doa, handiagotuz, handiagotuz... eta ohartzen zarenerako itsu bilakatu zaitu, leiho guztietatik sartu zaizu etxe barrura, saiatzen zara ate, leiho eta kontraleiho guztiak ixten, baina alferrik da, argia etxe barrura sartu zaizu, etxe osoan barrena hedatu da, sakabanatu da, etxe osoa hartu du, okupatu dizu.

Eta egiten uzten diozu. Horrela, behintzat, ez duzu barruko min sor horrekin bizitzen jarraitu beharko. Ez zaitu inora eramango, badakizu, baina lehendik kale-itsu batean harrapatuta zegoenari zer axola dio horrek...? Mundua ez omen da –ez omen zen– biribila...? Ba tori biribiltasuna! Mundua ez omen da –ez omen zen– edan gabe mozkortzen direnena...? Ba tori hordikeria, hilobiraino ere jarraituko dizuna, larru-azalari atxikita geratuko zaizuna, etiketa lotsagarri bat bezala noranahi jarraituko dizuna itzala bera baino zintzotasun askoz handiagoz.

...

“Ez, ez daukazue zer eginik hemen” esaldia eta mota horretako esaldi guztiak ezabatuak ziren betiko. Geratzen zen orain itsaso itzalgaitzaren zurrumurrua, aieru beltz bat moduan nonahitik heltzen zitzaiguna, baina bere hartan jasateko modukoa, sexu hitzaren modukoa, sexu

bizimoduaren gisakoa, garabatu ergel eta gorrotagarri baten antzera jarraituko ligukeena hiriko kale-kantoi, erakusleiho eta horma eta pareta eta murre guztietan, “Sexua”, beti idatzita han eta hemen, hiritar guztien ergelkeria salatuz bezala –ez soilik garabatuaren egilearena, ergeletan ergelena–, baina herriko biztanle guztiena.

Epitafio bat zen, hiriaren omenez idatzitako azken esaldi “adimentsua” –ez zen esaldi bat, hitz bai baizik–: sexua. Kito. Hantxe amaitzen zen bidea.

Beste bide berri bati hasiera emateko, akaso...? Ez, ez dut uste “hantxe amaitzen zén bidea hantxe hastekoa zén beste baten abiapuntua zenik”, baina esaldiaren estetika, asmoa, berez ederrak, zinez ederrak, iruditu zitzaizkidan.